prentsa@lab.eus www.lab.eus @labsindikatua

# LABek greba mugagabea abiatu du Laudioko Talleres Abasolon atzeratutako soldatak kobratzea exijitzeko

LABek Laudioko Talleres Abasoloko 25 langileak bizitzen ari diren egoera salatu nahi du. Oso egoera zailean daude, urte luzeko soldata-atzerapenen ondoren 4 hilabeteko nomina-zorra metatzen baitute. Enpresaren Administrazio Kontseiluak ez die inolako erantzunik eman langileek pairatzen duten ez-ordaintze egoerari eta atzo, urtarrilaren 16an, greba mugagabeari ekin zioten zor dizkieten soldatak kobratzea exijitzeko.

Enpresari buruzko erabakiak hartzeko ahalmena duten bazkideei aurpegia eman dezatela eskatzen diegu,, eta proiektuarekin jarraitzeko helburua izatekotan, dirua jar dezatela. Talleres Abasolok ezin du langileen gain ezarri egin beharreko ahalegin guztia.

Langileek oso argi dute ez dutela egun bat bera ere jarraituko doan lan egiten eta zor dietena handiagotzen. Egoera horren aurrean, greba mugagabea hasi zuten, enpresaren bideragarritasunari buruzko erabakia ahalik eta azkarren hartzeko eta 4 hilabeteko zorrari irtenbidea emateko.

Laudion, 2023ko urtarrilaren 17an